

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### **2016ko zergen kobrantza: landa eta hiri ondasun higiezinak, ezaugarri berezietako ondasun higiezinak, jarduera ekonomikoak, eta eraikuntza, instalazio eta obrak**

Jakinarazten dut: 2016ko azaroaren 15etik abenduaren 30era bitartean ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, exakzio hauen 2016ko ordainagiriak:

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

1. Ordaintzeko epea

Borondatezko epea: 2016ko azaroaren 15etik abenduaren 30era.

Betearazte aldia: 2016ko abenduaren 31tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak –premiamendu murriztukoak eta premiamendu arruntekoak– ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, adierazitako epeetan.

2. Ordaintzeko lekua eta modua

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak

Ordainketa helbideratuta ez daukatenek udal bulegoetan baino ezin izango dute ordaindu, borondatezko epean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2016ko urriaren 24a

*Alkatea*

*JUAN ANTONIO SANTAMARÍA FAJARDO*